

Haitira bideratuko dute Getxoko Bigarren Eskuko Liburu Azokan bildutako dirua

Gaur hasita eta igandera arte, Bigarren Eskuko Liburu Azokaren 5. edizioa izango da Algortako Telletxe plazan, Getxoko Liburutegi Zerbitzuak antolatuta. Ohi bezala, bildutako dirua lankidetzaproiektu solidario batean erabiliko da. Aurten, Haitira bideratuko da, UNICEFen bitartez. Azokaren ordutegia ondokoa da: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Igandean, goizez irekiko da soilik. Horrela, lau egunean zehar, bisitariak hainbat gaiei buruzko liburuak erosteko aukera izango dute. Salmentan jarriko diren argitalpen gehienak partikularrek liburutegiei emandakoak dira. Liburu guztiek prezio sinbolikoak izango dituzte, euro batean hasita. Aurten, 15.000 bat ale salduko dira, udal liburutegiei emandakoak. Horiek guztiak banan-banan aztertzen dituzte, liburutegien bildumari zeintzuk gehitu dakizkiokeen erabakitzeko. Argazkian, goizean zabaldu dute bigarren eskuko liburu azoka.

Udal liburu-bildumara pasatzen ez diren hainbat liburu interesgarriak gerta daitezke publikoarentzat eta, hori dela eta, udal liburutegiek saltzea erabaki zuten, getxoko lau udal liburutegietako garbiketaz baztertutako aleekin batera. Horrela sortu zen Bigarren Eskuko Liburu Azoka iaz. Aurreko ekitaldian 11.000 bat liburu saldu ziren bertan eta onarpen zabala izan zuen ekimen hori.